



Arriagaganehoetxea (-a) etxebizitza

Aldacrak: Arriagaganekoa
Ahozkoa: Báldarrena

“... la casería rústica titulada
Arriaga Goyena...”
DJE 2/191 or. (1868)



43° 10' 12"

2° 35' 27"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Bizitza bateko baserri honen gaineko lehendabiziko arrasto dokumentala 1729koa da, *Arriaga Ganecoechea* (1729, BAHF, A611/31), alegia. Hortik aurrera, XIX. eta XX. mendeetan zehar, aldaera desberdinak izan ditu izenak: *Arriaga goxeascoa* (1825, JCR 0571/014), *Arriaga goicoa* (1825, JCR 0571/012), *Arriaga Goyena* (1882, DJE, 5/ 54. or.), *Arriaga Gainecua* (1905, BUA, 40) eta *Arriaganecoa* (1967, BUA, CE). Auzotarren artean, *Báldarrena* moduan ezagutzen da. Irene Gaztelurrutiak haren aitonari entzundakoaren arabera, lehen etxe horretan gizon nahiko baldarra bizi zen, eta hortik datorkio etxeari ezizena.

Baserria aspaldi dokumentatzen bada ere, gaur egun ikusten duguna XX. mendearen hasieran orduko ohiturari jarraituz berriztatu zuten erakina da. Oso modu sinplean atondu zuten fatxada nagusia, bi solairuei eta ganbarari guztiz egokitua. Erdian atea dauka, eta horren alboetan, leiho bana: lehenengo solairuan, beheko baoekin lerrotatuta, beste leiho bana dago, eta ganbaran, fatxadaren erpinean, leiho txiki bat. Bai hormak, bai etxe-kantalak eta bao-inguru guztien moldurak, luzituta eta pintatuta daude. Teilatua hiru isurkikoa da.

toponimia

Bizkaiko etxe izenak inongo luzeenak dira Euskal Herrian eta beraietan oinarritutako deiturak luzeenak ere badira. Arrazoa ulertzeko erraza da. Erdi Aroan etxe bat egon zen inguruan gehiago eraiki ziren eta guztiek gorde zuten jatorrizko izena etxe beraren izanarekin batera. Lehengo eta behin auzoaren izena dugu eta gero etxearen berarena: Zengoitagoitia, Trañajauregia, Gazteluiturri. Kasu honetan goiko aldekoa dela esaten digu, baina interesgarria da hori esateko euskaldunek ditugun eta eduki ditugun bideak. Lehenengo aipuetan Arriagaganehoetxea ageri da, geroago, laburragoa den Arriagaganekoa eta XIX. mendean beste hiru aukera desberdin: Arriagagoxeaskoa, Arriagagoikoa eta Arriagagoenengoa. Euskaraz izan diren aukeren artean bakarra falta da Arriagagoitia.